



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA  
2016/07/18

## **Smithsonian Folklife Festival jaialdia ospatu eta gero Bizkaia eta Euskadi "gehiago eta hobeto" ezagutzen dira Estatu Batuetan**

Lorea Bilbao Euskera eta Kulturako diputatu andrea Batzar Nagusietara etorri da gaur goizean, berak eta oposizinoko talde batek baino gehiagok eskatuta, Smithsonian Folklife Festival jaialdiaren balantzea egiteko. Aldundiko arduradunak adierazo dauenez, bagilaren 29tik garagarrilaren 10era Washingtonen egin dan ekitaldi hori “aukera parebakoa” izan da, eta Euskadiko erakundeek aukera horretaz “baliatzen jakin dabe”, “aurrera eroaten eta indartzen jarraitu behar dan” euskaldunon kultura “erakargarria eta berezia” Estatu Batuetako herritarrei erakusteko. “Orain gehiago eta hobeto ezagutzen gaitue, kulturaren zein enpresaren ikuspuntutik”, gehitu dau.

Euskadi, jaialdiaren antolakuntzak emon dituan datuak kontuan izanda Euskal Herriko erakundeek prestau dituen guneetara hurbildu diran “600.000 pertsona baino gehiagori” Estatu Batuetako uriburuan bere kulturaren erakargarritasuna erakusteko aukerea izan dauen “Europa hegoaldeko lehenengo herrialdea izan da. Diputatuak adierazo dauenez, “aurreikusitako baino jende gehiago” hurbildu da. Baina, gainera, alderdi positiboen artean, Bilbaok Eusko Jaurlaritzaren, Nafarroako Gobernuaren eta hiru aldundien eta jaialdiaren antolatzaileen eta Estatu Batuetan dagoan euskal diasporaren arteko alkarlana azpimarratu dau.

Maila pertsonalean, Estatu Batuetako uriburuan bizi izandako esperientzia “gogorra” izan dan arren, hartutako erantzukizuna dala eta “gogokoenetakoa” be izan da. Holan, diputatu andrea “harro” itzuli da, eskini dan irudia dala eta, eta baita euskal diasporak hamarkadatan egin dauen beharra “autortu” dalako be.

“Aldi berean”, kultur ekitaldiagaz batera ekonomian eta enpresa munduan oinarritutako agendea be gauzatu da. Foru aldundia, Estatu Batuetako agintariakaz eta enpresa arloko eragileakaz hartu-emonak ezarteko Washingtonera joan diran “energia, automobilgintzea eta aeronautikea” moduko sektore “traktoreetako” Bizkaiko “25 enpresaren” “bideratzaile” eta “laguntzaile” moduan ibili da bertan. Horri esker, “negozio aukerak sortu dira eta ateak zabaldu dira”. “Asko erein dogu”, autortu dau Bilbaok.

### **“ZUHURTZIA” DIRU-BILKETAREN JATSIEREA DALA ETA**

Beste alde batetik, Euskera eta Kulturako batzordean bertan, diru-bilketan izandako jatsierak, berak zuzentzen dauen sailaren aurrekontuan izango dauen eraginaz galdetuko deutso Talde Popularrak diputatu andreari. Bilbaok, joan dan asteen José María Iruarrizagak Ogasun eta Finantzetako diputatu jaunak Batzar Nagusietan esan ebazan berbak aitatu ditu. Bertan, diputatu jaunak “zuhurtzian” oinarritutako mezua zabaldu



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

eban. “Gastuan lehentasunak ezarriko doguz, eta azkenengo hiruhilekorako itziko dogu ezinbestekoa ez dana”. “Beharrezkoa bada, proiektuak atzeratu egingo doguz, baina ez doguz alde batera itziko”, esan dau.

#### “EZ DA” URDAIBAICO GUGGENHEIMERA KO UNEA

Talde Mistoak, Guggenheim Museoa Urdaibaira zabaltzeko egitasmoaren egoerearen eta agintaldi honetarako horren gainean aurreikusitako ekimenakaz lotuta egin dauen erantzun-eskearen aurrean, legealdi honetan zabaltze hori egitea “ez dauela aurreikusten” Aldundiak adierazo dau Bilbaok. “Une ekonomikoak ez dau horretarako aukerarik emoten, baina unereren batean horri be ekin beharko deusagu”, adierazo dau.

#### KALZINAZINO-LABEEN GAINEKO AZTERLANA

Saio berean, Euskera eta Kulturako batzordeak aho batez onartu dau Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek aurkeztu daberen arauz besteko proposamena, lurralde historikoan dagozan kalzinazino-labeen “azterlan zehatza” egin daian eskatzeko Aldundiari, “halan eresten bajako, bakotxak behar dauen ondare arloko babes-mailea eskatu ahal izateko”.

Ekimenean jasoten danez, azterlan horretan “aztergai izan beharko litzatekez osagaion egoerea, bideragarritasun ekonomikoa eta iraunkortasuna, horreen balioa jakinarazo eta babesa emoteko ikuspegi oinarritua emotearren”.

Proposamena defendiduteko orduan, PSE-EE taldeko Juan Oterminek azaldu dauenez, aztelana “bederatzi” kalzinazino-laberen gaur egungo egoerea ezagutzen zentrauko da. Badagoz ondo babestuta edo kontserbauta dagozan aztarna batzuk, Miribillan (Bilbao) dagoan San Luisekoa edo Urtuellakoa, adibidez, baina “ez dogu ezagutzen beste batzuen errealidadea”. Kalzinazino-labeak Bizkaiko meatzaritza arloko ondarearen parte dira, eta XIX. mendean hasi ziran eregiten. “Bizkaia izan dauen bilakaerea ulertzen laguntzen deuskuen lekukoak dira orain ez denpora askokoak”, Mikel Bagan jeltzaleak azaldu dauenez.

Ekimenak Batzarretako talde guztien aldeko eretxia jaso dau, baina EH Bilduren eretxiz “denporeari jagokonez mugea” ezarri behar da azterketea eta katalogazinoa egiteko, Sestaon eta Trapagaranen dagozan “Balcoren” instalazinoetan gertatu diranen antzeko gertakaria gertatu ez daitezkan (suteak, lapurretak...), instalazino horreek etenik barik narriatu diralako azken denporetan.

Hain zuzen be, Talde Mistoak Lorea Bilbaoren agerraldia eskatu dau Backcok & Wilcox enpresaren instalazinoak dirala eta. Gogoratu dauenez, Industria Ondarearen Euskal Alkarteak eskaria egin deutse Euskadiko erakundeei “beste leku batera begiratu ez daien”, ondarearen parte bat “arriskuan” dagolako.

Diputatu andreak gogoratu dauenez, instalazinoak, jaubeengan eragina dauen konkurtso prozesuan sartuta dagoz. Momentuz, Bizkaiko administrazinoak bere gain hartu dau



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

enpresako artxiboan egozan “15.000 irudiren” kudeaketea, baina Foru Aldundia zain dago, azkenean egoerea zelan bideratzen dan ikusteko. Bilbaok adierazo dauenez, une honetan beharrean dabiz Euskadiko gainerako erakundeakaz, “iraunkortasun, errazionaltasun eta bideragarritasun” erespideetan oinarrituko dan industriaren ondarea kontserbetako “plana” martxan jarteko.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**B I Z K A I A**

NOTA DE PRENSA  
18/07/2016

## **Bizkaia y Euskadi son "más y mejor conocidos" en EEUU tras la celebración del Smithsonian Folklife Festival**

La diputada de Euskera y Cultura, Lorea Bilbao, ha comparecido esta mañana en Juntas Generales, a petición propia y de varios grupos de la oposición, para realizar un balance del Smithsonian Folklife Festival. La responsable foral ha señalado que el evento celebrado en Washington entre el 29 de junio y el 10 de julio ha sido una “oportunidad única” que las instituciones vascas “han sabido aprovechar” para trasladar al público norteamericano una cultura “atractiva y especial” de los vascos, una relación que “hay que seguir desarrollando”. “Somos más conocidos y mejor conocidos ahora, tanto desde el punto de vista cultural como empresarial”, ha dicho.

Euskadi ha sido “el primer país del sur de Europa” que ha podido mostrar en la capital norteamericana su atractivo cultural a “más de 600.000 personas” que han acudido a los diferentes espacios habilitados por las instituciones vascas, según datos de la organización del festival. Además de esta asistencia de público, “mayor de la esperada”, entre los aspectos positivos Bilbao ha destacado también la colaboración interinstitucional lograda entre Gobierno Vasco, Gobierno de Navarra y las tres diputaciones, y los propios organizadores del festival y la diáspora vasca en EE. UU.

A nivel personal, la experiencia vivida en la capital norteamericana ha sido “dura”, a la vez que “de las más gratificantes” por la responsabilidad adquirida. En este sentido, la diputada ha vuelto “orgullosa” por la imagen ofrecida, así como porque la presencia vasca y vizcaína en Washington ha servido para “reconocer” la labor ejercida durante décadas por la diáspora vasca.

“De forma paralela”, el evento cultural ha ido acompañado de una agenda económica y empresarial y la Diputación ha tenido el papel de “facilitador” y “acompañamiento” de un total de “25 empresas” vizcaínas de sectores “tractores” como son “la energía, la automoción y la aeronáutica”, que han acudido a la capital estadounidense para establecer contactos con autoridades norteamericanas y agentes del ámbito empresarial, “generando oportunidades de negocio y abriendo puertas”. “Hemos sembrado mucho”, ha reconocido Bilbao.

### **“PRUDENCIA” POR LA CAÍDA DE LA RECAUDACIÓN**

Por otro lado, el PP ha preguntado en la misma comisión de Euskera y Cultura a la diputada foral por cómo afectará la caída de la recaudación a los presupuestos del área que dirige. Bilbao se ha referido a las palabras que ya pronunció la semana pasada en una comparecencia en Juntas Generales el diputado de Hacienda y Finanzas, José María Iruarizaga, en las que lanzó un mensaje de “prudencia”. “Priorizaremos el gasto y



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

dejaremos para el último trimestre aquello que no sea imprescindible”. “Retrasaremos proyectos si hace falta, pero no los dejaremos de lado”, ha dicho Bilbao.

#### “NO ES EL MOMENTO” PARA EL GUGGENHEIM DE URDAIBAI

A una pregunta oral del grupo Mixto sobre la situación del proyecto de ampliación del Museo Guggenheim en Urdaibai y las actuaciones previstas al respecto, la diputada de Euskera y Cultura ha señalado que la Diputación “no tiene previsto” en esta legislatura acometer dicha ampliación. “El momento económico no lo permite, pero en algún momento lo tendremos que abordar”, ha advertido.

#### ESTUDIO SOBRE LOS HORNOS DE CALCINACIÓN

En la misma sesión, la comisión de Euskera y Cultura ha aprobado por unanimidad una proposición no de norma presentada por Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos para instar a la Diputación a realizar un “estudio detallado” de los hornos de calcinación localizados en el territorio histórico, “con la finalidad de poder solicitar, a la vista de los resultados del mismo, las figuras de protección del patrimonio necesarias”.

En dicho estudio, “debería analizarse el estado de conservación de los elementos así como su viabilidad económica y sostenibilidad, de forma que se pueda obtener una visión fundamentada de su posible puesta en valor y protección”, se recoge en la iniciativa.

En su defensa, Juan Otermin, del PSE-EE, ha concretado que el estudio se centrará en conocer el estado actual de “nueve” hornos de calcinación. Existen algunos vestigios como el de San Luis en Miribilla (Bilbao) o el de Ortuella, que están bien protegidos o conservados, pero “otros desconocemos su realidad”. Los hornos de calcinación forman parte del patrimonio minero de Bizkaia y comenzaron a construirse en el siglo XIX. “Son testigos de una época reciente que nos ayudan a comprender la evolución vizcaína”, ha explicado a su vez el jeltzale Mikel Bagan.

La iniciativa ha contado con el apoyo unánime de todos los grupos junteros aunque EH Bildu ha puesto el acento en que se ponga un “límite temporal” para que se realice el estudio y la catalogación con el objeto de que no sucedan episodios (incendios, saqueos...) como los ocurrido cenn las instalaciones de “La Balco”, en Sestao y Trapagaran, que han sufrido un deterioro continuado en los últimos tiempos.

Precisamente, en relación a las instalaciones de la Backcok & Wilcox, el grupo Mixto había solicitado la comparecencia de Lorea Bilbao, recordando que la Asociación Vasca de Patrimonio Industrial ha pedido a las instituciones vascas que "no miren hacia otro lado" ya que está "en peligro" parte del patrimonio.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

La diputada ha recordado que las instalaciones están sujetas a un proceso concursal que afecta a los propietarios de las instalaciones. De momento, la administración vizcaína se ha hecho con la gestión de "15.000 imágenes" del archivo de la empresa, aunque el Gobierno foral se muestra a la espera de ver cómo se resuelve finalmente la situación. Bilbao ha advertido que actualmente trabajan con el resto de instituciones vascas en un "plan" de conservación del patrimonio industrial con criterios de "sostenibilidad, racionalidad y viabilidad".